

# Ahaztutako ipuinen kutxa



*Ahaztutako ipuinen kultura* handiz egindako sorkuntza-prozesu arduratsu baten emaitza da, non kontakizuna, ilustrazioa, zuzenketak eta maketazioa txirikordatzen diren hezkuntzaren eta osasunaren, ezagutzaren eta maitasunaren arteko harreman sakona aztertzeko. Bertrand Russell-en «Bizitza ona maitasuna inspirazio-iturri eta eza-gutza gidari duen bizitza da» esaldia ardatz hartuta, liburuak gaur egun puri-purian dauden osasunarekin lotutako gaiak jorratu nahi izan ditu, besteak beste, heriotza, emozioen kudeaketa, komunikazio terapeutikoa eta estigma osasun mentalean. Serotonina arratoitxoa, Estigma eltxoa eta Txinparta igaraba bezalako irudizko pertsonaiei esker, bizitza beteagoa eta kontzienteagoa sustatu nahi duten abentura literario zirrargarrietan murgiltzeko gonbita egiten zaie adin guztietako irakurleei. Liburu hau idaztea posible egin duten pertsona horien guztien helburua beteko dela eta pertsona hobeak izaten lagunduko gaituelakoan nago.

## Balio implizituak

Liburu honek enpatia, osasun mentalarekiko errespetua eta heriotza eta emozioak bezalako gaien aurrean irekitasuna lantzerako gonbidatzen du irakurlea. Horrez gain, emozioen kudeaketa bultzatzen du, komunikazioaren eta hitzen boterea nabarmentzen du, eta, pertsonaia xarmagarrien bidez, elkarren arteko ulermena, jakin-mina eta hazkunde pertsonala sustatzen ditu. Helburua: zientziak, letrak eta arteak esperientzia aberasgarri batean batzea.





# Ahaztutako ipuinen kutxa



Nire aiton-amonei, benetan nire zoriontasuna aurkitzeko gakoak zeintzuk diren erakusteagatik: zaintza eta ahalegina.

Idatzia David Arzoz Larrañaga eta Isabel Garcia Irurzun



## Esker onak

«Bizitzan esker onekoa izan behar delako» **Milagros**

Ez dakit zuek, baina liburu bat irakurtzean hau da niretzat zatirik gozagarriena; baliteke liburu bat pertsona askoren ahalegina dela jabetzen naizelako izatea, eta ez dago soberan eskainitako denbora eskertzea: dela pixoihala aldatuz, dela une zailetan lagun eginez, dela bizitzan zehar sortu zaizkizun galderei erantzunez.

Ezagutu ditudan pertsona guztiei eskainia, baita atal hau irakurtzean beren buruei hemen sartzen ote ditudan galdetzen dietenei ere. Eskerrik asko familiari maitasunetik eta apaltasunetik zaintzen irakasteagatik; lagunei, zaintzen dudan egun bakoitzean haiengan pentsatzen dudalako; eta, noski, nire irakasleei, egunero ikasketaz gozatzen irakasteagatik. Maiteri eta Sergiori, xehetasun guztietan gelditu eta bihotzetik aholkatzeagatik. Immari, patxadaz irakurtzearen maitasuna transmititzeagatik. Arantxari, bere dedikazio eta ahaleginagatik. Anaiari eta gurasoei eman didaten gauzarik baliotsuena erakusteagatik: maitasuna. Eta nola ez, eskerrik asko Isari, hitzekin adierazi ezin den hori pasioz islatzeagatik.

Eskerrik asko maitasunez eta pazientziaz nire zalantzak argitzeko astia hartu duten guztiei. Izan ere, norberari eta gainerakoei galderak egitea da kontua, baina ez du ezertarako balio erantzuten saiatzen ez bagara.

